+ Bayona-tik 1946ko Jorrailaren 13an

Jauna,

Gaitza igorri daukuzu azken hori... Atseginekin ikusi dugu denek, ezagutu ginuen Lafitte gure Jaun Irakasle maitea bizi dela oraino... Politikero saltzeroak ez badira oraikoan ixiltzen, larru zaila dukete!

Beraz astekariaren saila erakutsi duzu artikulu hortan. Kaskoin plantako bat hobe Eskualdun arnegatu bat baino. Gaitzeko propaganda beharko da egin. Esku-ukaldi zonbait nahi duzularik zure zerbitzuko izanen gira.

Zonbait erretor zaharreki atx erran dukete lerro horiek irakurtzean. Hemen ere batzu zede bat muturrekin

gelditu dira, bainan gehienak gure alde dira. Nik uste oraiko gazteak apezteareKin beste plantarik izanen duen Eskual-Herriak.

Beraz erran bezala, eta jauspenekin agur Jel baitan.

E. Bidegain

+ Donazaharretik 1948ko Uztailaren 6an

Jauna,

Ez niz guti harritu jakin dutalarik "zahar" horien jokoa-egiaz balinbada segurik...
Zaharrek uzten bazituzte ere gu Gazteak hemen izanen gira zure zerbituko. Ez dugu ahantzen zuri dugula zor Eskual-Herriaren eta eskuararen aldeko amodio beroa.

Jauspenekin agur Jainkoa baitan.

E. Bidegain

bikarioa

+ Donazaharretik, 1950ko epailaren 18an.

E. Bidegain

...una,

Dakiz[illegible] bezala, chaharrak ardura bekaizti dira, eta ez da aise enetzat Jaun Erretoraren ordain jartzea "Herria"-ren salarazteko!...

Ez dut nahi halere ene faltan astekari hortaz gabetuak izan diten hoinbeste familia, baitakit beti atseginekin eskuratzen dutela.

Beraz galdeginen diotet nahi dutenitz urteko saria eman, etxerat bererat ukaiteko gisan. Ahal bezain fite igorriko dauzkitzuet adrezak: anartean segi otoi hola hola. Yadanik Madalendarrak abonaraziak ditut sendi bainuen aspaldichkoan holako joko bat gogoan zagola gure chaharra. Abisa zazu otoi Mestelan —

Zer nahi duzu, politika ez da horren gustukoa. Dena Petit, Iharnegaray eta Etcheverts da. Trinitate berri hortan badu Bestean bezanbat Konfiantcha!... Ez utz gutiz...

Kantonamenduko bozketan ere eman zuen hauindi-haundia "Herria"-n: "Etcheverts-ek Inchauspe balio du!" Ondoko astean nahiko zuen Kaseta gorde, bainan Irigoyenek etxe guzietan harreatu zituen urririk.

Guazen beti aintzina...

eta jaunsenkiro agur Jaun Korkaitou

E. Bidegain

+ Donazaharretik, 1950ko epailaren 18an

Jauna,

Dakizun bezala, chaharrak ardura bekaizti dira, eta ez da aise enetzat Jaun Erretoraren ordain jartzea "Herria"-en salarazteko!...
Ez dut nahi halere ene faltan astekari hortaz gabetuak izan diten horrenbeste familia, baitakit beti atseginekin eskuratzen dutela.
Beraz galdeginen diotet nahi dutenitz urteko saria eman, etxerat bererat ukaiteko gisan.
Ahal bezain fite igorriko dauzkitzuet adrezak: anartean segi otoi hola hola. Jadanik Madalendarrak abonaraziak ditut sendi bainuen aspaldichkoan holako joko bat gogoan zagola gure chaharra. Abisa zazu otoi Mestelan.
Zer nahi duzu, politika ez da horren gustukoa. Dena Petit, Iharnegaray eta Etcheverr da. tridditate berri hortan badu Bestean bezanbat konfientcha!... Ez utz gutiz...
Kantonamenduko bozketan ere eman zuen handi-handia "Herria"-n: "Etcheverr-ek Inchauspe balio du"! Ondoko astean nahiko zuen kazeta gorde, bainan Irigoyenek etxe guzietan harreatu zituen urririk.
Guazen beti aintzina...

eta jaunsenekin agur Jaun Konbaitoa

E. Bidegain